


# Emango didazu zure teletrofono zenbakia?

NEW YORK, 1850. Antonio Meucci (1808-1889) asmatzaile italiarrak sorterrria utzi eta AEBetara emigratu zuen. Beste hainbat asmakizun baztertu eta berehala buru-belarri hasi zen ahots bidezko lehen komunikagailua garatzen. Urteetako lanaren ondoren, azkenean, komunikagailuak funtzionatu zuen; sotoko laborategia bigarren solairuko logelarekin konektatu zuen gailu berriaren bidez. Eta teletrofono deitu zion.

1871n patenteen bulegoan *patent caveat* delako bat aurkeztu zuen, asmakizun iraultzailea babesteko. Dokumentu hori behin-behineko patente modukoa zen, urtero berritu behar zena. *Patent caveat* hura indarrean zegoen tartean beste norbaitek antzeko asmakizun bat aurkeztuz gero, patenteen bulegoak jatorrizko asmatzaileari jakinarazi behar zion, eta hark hiru hilabeteko epea zeukan behin betiko patentea eskatzeko. Epe barruan eskaerarik egon ezean, patentea bigarrenak eskuratuko zuen.

Teletrofonoa aurkeztu eta gutxira, Meuccik istripu larria izan zuen. Staten Islanden bizi zen, eta auzunea Manhattanekin lotzen zuen ferryaren galdarak eztanda egin zuenean, erredura larriak izan zituen. Zauriak sendatu bitartean Antonio Meuccik ez zuen diru-sarrerarik izan, eta gizarte laguntzari esker egin zuen aurrera. Baina hori ez zen nahikoa behin-behineko patentea berritu ahal izateko. 1874an ezin izan zituen ordaindu berritzeak balio zituen hamar dolarrak eta, horrenbestez, hiru urte lehenago lortutako eskubi-deak galdu zituen.

1876an Alexander Graham Bellek (1847-1922) telefonoaren patentea eskatu zuen eta behin betiko dokumentua zuzenean lortzeko behar ziren 250 dolarrak ordaindu zituen. Meucciren izena asmakizunen historiatik ezabatu eta berea idatzi zuen. Bidez batez, asmakizunaren izenari erdiko silaba kakofonikoa jan zion.



**Antonio Meucci italiarrak teletrofonoa asmatu zuen Alexander Graham Bellek telefonoa patentatu baino bost urte lehenago. Baina hamar dolar gorabehera, hotsandia eta aitortpena Bellek eraman zituen.**

Meucciren arabera, asmakizunaren zirriborroak eta prototipoak galdu egin zituen, eta ustekabeen, Bellek lan egiten zuen laborategian azaldu omen ziren. Meuccik Bellen kontrako auzi eskea aurkeztu zuen, iruzurragatik. Baina eskea bideratzen ari zirela hil zen italiarra.

2002an, Vito Fossella biltzarkidearen ekimenez, AEBetako Ordezkarrien Ganberak 269. ebazpena onartu zuen, eta Antonio Meuccik telefonoaren asmaketan egindako lana aitortu behar zela adierazi. Baina, egun, oraindik ez dago garbi bata zein besteak zenbaterainoko merezimendua izan zuten asmakizuneari.

Zer gertatuko zen Meuccik hasieratik behin betiko patentea ordaindu izan balu? Edo istripuaren egunean aurreko ferrya hartu izan balu? Edo 1874an hamar dolar bildu izan balitu? Beharbada gustatzen zaigun horri teletrofono zenbakia eskatuko genioke, gure smarttrophone berriari aplikazioak deskargatuko genituzke, eta teletrofono konpainien dei gogai-karriekin nazkatuko ginategi. ■



## Arrastoak Krisiaren aurkako arkeologia Katalunian

GRESEPIAK (Grup de Recerca Seminari de Protohistòria i Arqueologia), Tarragonako Rovira i Virgili Unibertsitateko taldeak, arazo ekonomikoak ditu L'Assut de Tivenys-eko aztarnategia babesteko eta industen jarraitzeko. Horregatik lantaldeak Verkami bat zabaldu du, Internet bidezko mikromezenazgo sistema, proiektuarekin jarraitu ahal izateko. Sistema horren bidez, edonork edozein ekarpen egin dezake, eta Gresepiako kideek 3.000 euro biltzea espero dute.

2000. urtean hasi ziren L'Assut de Tivenyseko aztarnategia industen, eta dagoeneko K.a. VII. mendetik I. mendera bitarteko asentamenduen arrastoak aurkitu eta egiaztatu dituzte. Baina orain arte agerian utzitako egiturak arrisurkuan daude eguraldia dela eta. Horiek babesteko 6.000 euro behar dituzte. ■



GRESEPIA



**Goian, L'Assut de Tivenyseko airetiko ikuspegia. Azpian, unibertsitateko ikasleak aztarnategian lanean.**